

LABURPENA

Animalien Erresuma Eibarren kokatutako txakur eta katuentzako hotel berezi bat da, maskotentzako zerbitzu profesionalak eskaintzen dituena. Zerbitzuen artean hauek daude: hotel zerbitzua, non maskotek etxean bezala senti daitezen gela erosoak, jolastokiak eta zaintza egokia eskaintzen diren. Albaitaritza zerbitzuak, larrialdiak kudeatzeko, errebisioak eta tratamenduak egiteko. Ile-apaindegia, maskoten higiena eta estetika bermatzeko mozketak pertsonalizatuak, bainuak eta tratamendu bereziak barne. Heziketa zerbitzuak, txakurrentzako entrenamendu profesionalak eskaintzen dituztenak, jokabidea hobetzeko eta trikimailu berriak ikasteko. Lepoko adimendunak, GPSa, QR kodea eta osasun-monitoreak dituzten lepoko pertsonalizatuak. Eta etxeko zaintza zerbitzua, non maskotak beren etxean zaintzen diren, lasaitasuna eta segurtasuna bermatzeko. Zerbitzu hauekin maskoten ongizatea bermatzea dute helburu, garapen jasagarria sustatuz eta teknologia berritzailea erabiliz, maskoten eta jabeen bizi-kalitatea hobetzeko.